

Biderketa (*biderkaketa)

7 (biderkakizuna)

x 2 (biderkatzaila)

14 (biderkadura)

Biderketa irakurtzeko, *bider* hitza tartekatzen da biderketako zenbakien artean.

- Zazpi bider bi, hamalau
- Zazpi bider bi berdin hamalau
- Zazpi bider bi hamalau da

Eragiketa matematikoa
adierazteko, *biderkatu* zein *egin*
aditzak erabil daitezke.

- Zazpi bider bi biderkatu dugu.
- Zazpi bider bi egin dugu.

Testuetan, maiz, ez dira zenbakiak biderkatzen, baizik kontzeptuak, magnitudeak (abiadura, luzera...), sinboloak eta letrak.

Horrelakoetan, **-(e)Z** kasuan jokutzen da biderkatzailea (eta ez **-GATIK** kasuan).

Adibidez:



Konstante hori **2,5ez** biderkatu behar duzu.

■* Konstante hori **2,5engatik** biderkatu behar duzu.



Jarduera-faktore **batez** biderkatu dute metabolismo basala.

■* Jarduera-faktore **batengatik** biderkatu dute metabolismo basala.

Biderkatzailea, kasu horretan, zenbaki edo sinbolo izanik, mugagabeen jokatzen da.

- Hazkunde-faktorea **-2,3z** biderkatzen da.
- Angelua **5ez** biderkatzen da.
- Kantitate hori **v-z** biderkatzen da.

Azken adibide horretan, argitasunari begira, aposizioa erabiltzea da komenigarriago, gaizki-ulertuak saiheste aldera:

Kantitate hori v abiaduraz biderkatzen da.

Eta, aitzitik, izen bada biderkatzailea, era mugatuan edo mugagabeen jokatzen da, determinatzailearen arabera.

- Ekuazio hori desplazamendu**az** biderkatu behar da.
- Balio hori 2,3 biderkagai**az** biderkatzen da.
- Konstantea **bi** kantitate**z** biderkatzen da.
Bata positiboa da; bestea, berriz, negatiboa.

Aintzat hartu behar dugu,
itzulpenari begira, gaztelaniazko
multiplicar aditzak ez duela beti
eragiketa matematikoa
adierazten.

- En determinadas condiciones ambientales multiplica por tres su tamaño.
- A ciertas temperaturas la presión puede multiplicarse por tres.

Horrelakoetan, zerbait zenbait aldiz handiagotzen dela eman nahi da aditzera.

- Ingurune-kondizio jakin batzuetan, hirukoiztu egiten da haren tamaina.
- Ingurune-kondizio jakin batzuetan, hiru aldiz handiago egiten da haren tamaina.
- Zenbait tenperaturatan, hirukoiztu egin daiteke presioa.